ZARAUZKO UDALA

ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA		PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS DE CONTRATO DE SERVICIOS
ADIKZIOAK PREBENITZEKO PROGRAMA **2025IK200014**		**PROGRAMA DE PREVENCIÓN DE ADICCIONES** **2025IK200014**
1.- SARRERA Adikzioen fenomenoa arazo konplexua da, gizartearen eraldaketekin batera aldatzen doa eta hainbat forma eta adierazpen har ditzake. Gaur egun, mendekotasunen kontzeptualizazioa ez da substantzien kontsumoan soilik oinarritzen, baizik eta joko eta/edo teknologiek sor ditzaketen jarrera desegokiei ere erreparatzen die. Lehenengo droga-kontsumoak eta substantziarik gabeko adikzioak nerabezaroaren aurretik (12-13 urte) eta nerabezaroan azaltzen dira. Etapa horretan, pertsonen autonomia bere arlo guztietan finkatzen da eta izugarrizko aldaketak gertatzen dira, bai fisikoak bai psikologikoak. Horiek guztiek eragin zuzena izango dute haur/gazte horrek bere gizarte-ingurunean tokia hartzeko orduan. Aldaketa azkar horien aurrean, nerabeak bere identitatea finkatu behar du eta helduen munduaren aurrean autonomia eta independentzia bilatzen ditu; horrek arrisku egoerak sortzen ditu nerabearengan. Bestalde, nerabezaroan ikaskideen eta lagun-taldearen eragina erabakigarria da, norbere identitatea eraikitzeko prozesuan oso garrantzitsua delako eta nerabeari aukera ematen diolako besteekin konpa**ratzek**o eta bere burua hobeto ezagutzeko. Lagun-taldeak pixkanaka eragin handiagoa hartuko du. Ohiturak, jarrerak, balioak eta bizimoduak finkatzerakoan, sozializazio-gune nagusia bihurtuko da. Drogekiko lehen kontaktuak gizarte-egoeratan gertatzen dira eta oso ezohikoa da lehen kontsumo horiek bakarka egitea. Kontsumoa lagun-taldean eta aisialdi garaian azaltzen da.		**1.- INTRODUCCIÓN** El fenómeno de las adicciones es un problema complejo que va cambiando con las transformaciones sociales y que puede adoptar diversas formas y expresiones. En la actualidad la conceptualización de las adicciones no se centra únicamente en el consumo de sustancias, sino también en las actitudes inadecuadas que pueden generar el juego y/o las tecnologías. Los primeros consumos de drogas y las adicciones sin sustancias aparecen antes de la adolescencia (12-13 años) y en la adolescencia. En esta etapa se consolida la autonomía de las personas en todos sus ámbitos y se producen grandes cambios, tanto físicos como psicológicos. Todos esos cambios tendrán una incidencia directa en el posicionamiento del niño, niña o joven en su entorno social. Ante estos rápidos cambios, la persona adolescente debe afianzar su identidad, y busca autonomía e independencia frente al mundo de las personas adultas, lo que le genera situaciones de riesgo. Por otra parte, en la adolescencia la influencia de los compañeros y compañeras y del grupo de amigos y amigas es determinante, ya que es muy importante en el proceso de construcción de la propia identidad y permite a la persona adolescente compararse con los demás y conocerse mejor. Progresivamente irá aumentando la influencia del grupo de amigos y amigas; a la hora de adquirir hábitos, actitudes, valores y estilos de vida, se convertirá en el principal espacio de socialización. Los primeros contactos con las drogas tienen lugar en las situaciones sociales y es muy insólito realizar estos primeros consumos de forma individual. El consumo se manifiesta en el grupo de amigos y en el tiempo libre.

Substantziarik gabeko adikzioetan eta drogen kontsumo desegokian gero eta nerabe gehiago inplikatzen dira, eta horrek ondorio pertsonal, sozial eta ekonomiko larriak dakartza.		La creciente implicación de las personas adolescentes en adicciones sin sustancia y consumo inadecuado de drogas conlleva graves consecuencias personales, sociales y económicas
Horrelako portaeretan nolabait ere esku hartzen duten osasun arloko eta hezkuntzako profesional gehienek uste dute arazo hori konpontzeko oinarrizkoa dela prebentzioko programa eraginkorrak garatu eta aplikatzea.		La mayoría de los y las profesionales sanitarios y educativos, que de alguna manera intervienen en este tipo de comportamientos, consideran que para resolver este problema es fundamental desarrollar y aplicar programas de prevención eficaces.
Onartu behar dugu gure gizartean beti egon direla, eta egongo direla, adikzio-arazoak. Hori horrela izanik, prebentzioaren oinarrizko xedea pertsonak errealitate horretan bizitzeko trebatzea da. Prebentzioan lan egiten duten guztien ustez, eskola oso leku egokia da prebentzioko programak eta jarduerak egiteko. Eskolaren bitartez, gazteenengana iristen gara. Beraz, proiektu hau eskola komunitatearen baitan garatuko da, eta esku-hartzea batez ere ikasleei zuzenduko zaie. Hala ere, programa osatzeko garrantzitsua da irakasleekin eta gurasoekin ere lan egitea.		Debemos reconocer que en nuestra sociedad siempre ha habido y habrá problemas de adicción. Siendo esto así, la prevención tiene como objetivo fundamental capacitar a las personas para vivir en esta realidad. Todas las personas que trabajan en la prevención consideran que la escuela es un lugar idóneo para realizar programas y actividades de prevención. A través de la escuela llegamos hasta los y las más jóvenes. Por lo tanto, este proyecto se desarrollará en el seno de la comunidad escolar y la intervención se dirigirá principalmente al alumnado. Sin embargo, para completar el programa es importante trabajar también con el profesorado y los padres y madres.
Bestalde, dekretu hau hartu behar da kontuan: 88/2022 DEKRETUA, uztailaren 12koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea ez betetzeagatik ezarritako zehapenak ordezteari buruzkoa.		Por otro lado, hay que tener en cuenta el DECRETO 88/2022, de 12 de julio, de sustitución de sanciones por incumplimiento de la Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.
Dekretu horretan oinarrituta, Zarauzko Udalak kalean edari alkoholdunak kontsumitzen ari diren adingabeei jarritako isuna ordezkatzeko aukera eskaintzen die. Ordezko neurriek izaera hezitzailea eta konpontzailea izan behar dute lehentasunez, jarrera arduratsuak sustatzeko eta babes-faktoreak areagotzen laguntzeko. Era berean, gurasoak edo legezko edo izatezko tutore, hartzaile eta zaintzaileak inplikatu behar dituzte.		En base a este decreto, el Ayuntamiento de Zarautz les ofrece la posibilidad de sustituir la multa impuesta a las personas menores de edad que estén consumiendo bebidas alcohólicas en la calle Las medidas alternativas deben tener prioritariamente un carácter educativo y reparador para fomentar actitudes responsables y contribuir a aumentar los factores de protección. Asimismo, deben implicar a las personas progenitoras, tutoras, acogedoras y cuidadoras legales o de hecho de la persona menor.
Beraz, kontratu honen baitan, Zarauzko ikastetxeetan ADIKZIOAK PREBENITZEKO PROGRAMA garatzeaz gain; Zarauzko kaleetan substantziak kontsumitzeagatik adingabeei ezarritako isuna ordezkatzeko izaera hezitzailea duen programa garatuko da. Programa horren helburu nagusia da jarrera arduratsuak eta		Por tanto, en el marco de este contrato, además de desarrollar el PROGRAMA DE PREVENCIÓN DE LAS ADICCIONES en los centros escolares de Zarautz, se desarrollará un programa de carácter educativo que sustituirá la sanción impuesta a menores por el consumo de sustancias en las calles de Zarautz. El objetivo principal de este programa es reforzar

babes-faktoreak indartzea, substantzien kontsumoak zer arrisku dakartzan antzematen laguntzea eta familiei gurasotasuna lantzeko baliabideak eskaintzea.	las actitudes responsables y los factores de protección, ayudar a detectar los riesgos asociados al consumo de sustancias y ofrecer recursos a las familias para fortalecer los cuidados parentales.
2.- KONTRATUAREN XEDEA Adikzioen prebentzioa lantzea: - Zarauzko ikastetxeetan adikzioak prebenitzeko programa garatzea. - Zarautzen substantziak kontsumitzeagatik adingabeei ezarritako isuna ordezkatzeko, izaera hezitzailea duen formakuntza-programa garatzea	**2.- OBJETO DEL CONTRATO** Trabajar la prevención de las adicciones: - Desarrollo del programa de prevención de adicciones en los centros escolares de Zarautz. - Desarrollo de un programa formativo de carácter educativo para sustituir la multa impuesta a menores por consumo de sustancias en Zarautz
3.- HELBURUAK	**3.- OBJETIVOS**
• **<u>Zarauzko ikastetxeetan adikzioak prebenitzeko programaren helburuak</u>**: Programa horren helburu nagusia da Zarauzko ikastetxeetan adikzioen prebentzioa lantzea, eta tabakoaren, alkoholaren, kalamuaren eta beste substantzia batzuen kontsumoarekin eta teknologien erabilera desegokiarekin lotutako arrisku-faktoreak murriztea eta babes-faktoreak areagotzea. Programa hezkuntza-komunitatean garatuko da, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Hiru kolektiborekin egingo da lan: Zarauzko ikastetxeetako ikasleekin, irakasleekin eta gurasoekin.	• **<u>Objetivos del programa de prevención de las adicciones en los centros escolares de Zarautz</u>**: El objetivo principal de este programa es trabajar la prevención de las adicciones en los centros escolares de Zarautz y reducir los factores de riesgo y aumentar los factores de protección relacionados al consumo de tabaco, alcohol, cannabis y otras sustancias y al uso inadecuado de las tecnologías. El programa se desarrollará en la comunidad educativa, en 5º y 6º de Educación Primaria y en Educación Secundaria Obligatoria. Se trabajará con tres colectivos: alumnado, profesorado y padres y madres de los centros educativos de Zarautz.
Helburu orokorrak: - Adikzioek pertsonen osasunean eta ingurunean duten eraginari buruzko sentsibilizazioa eta ezagutza handitzea, bai droga-mendekotasunei dagokienez, bai jokabide-adikzioei dagokienez. - Arrisku egoerak murrizteko babes-faktoreak indartzea eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzea. - Osasun fisiko, mental eta sozialaren zainketa sustatzea, bizitzarako ohitura osasungarriak bultzatuz. - Irakasleei programari buruzko informazioa eta gelan modu osagarrian lan egiteko baliabideak eskaintzea.	Objetivos generales: - Aumentar la sensibilización y el conocimiento sobre el impacto de las adicciones en la salud de las personas y en su entorno, tanto en lo que se refiere a las drogodependencias como a las adicciones comportamentales. - Potenciar los factores de protección para reducir los riesgos y promover hábitos de vida saludables. - Promover el cuidado de la salud física, mental y social, promoviendo hábitos saludables de vida. - Ofrecer al profesorado información sobre el programa y recursos para trabajar de forma complementaria en el aula.

- Familiei guraso-baliabideak eskaintzea; sentsibilizatzea, informatzea, orientatzea,seme-alaben babes-faktoreak eta jarrera osasungarriak indartu ditzaten kontsumo- eta arrisku-jokabideen aurrean.
- Programaren eremuarekin lotura duten eta Udalak sustatzen dituen beste programa edota ekimen batzuekin elkarlanean aritzea.

- **<u>Zarautzen substantziak kontsumitzeagatik adingabeei jarritako isuna ordezkatzeko izaera hezitzailea duen programaren helburuak:</u>** Programa hori adingabeari zein gurasoei zuzenduta dago, borondatezko aukera bat da eta adingabeek kalean substantziak kontsumitzeagatik jaso duten isuna ordaintzea ordezka dezake.

  Prebentzio- eta hezkuntza-izaera du, eta bere helburu nagusia alkohol-kontsumoaren edo bestelako mendekotasun-portaeren arriskuei eta kalteei buruz sentsibilizatzea eta kontzientziatzea da. Halaber, programak honako hauek sustatzen ditu:

  - Jarrera arduratsuak eta babes-faktoreak indartzea.
  - Gurasoak edo legezko edo izatezko tutore, hartzaile eta zaintzaileen inplikazioa, adingabeen portaera eraldatu eta berreraiki dadin. Horretarako behar duten informazioa, babesa eta laguntza emango zaie.

4.- HARTZAILEAK

- **<u>Zarauzko ikastetxeetan adikzioak prebenitzeko programren hartzaileak</u>**:
  Zarauzko hezkuntza-komunitatea izango da hartzailea, zehazki, ondoren aipatzen ditugun ikastetxeetako ikasleak, irakasleak eta gurasoak:
  - Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailan: Salbatore Mitxelena Ikastola, La Salle ikastetxea, Orokieta eta Antoniano ikastetxea.

- Ofrecer a las familias recursos parentales; sensibilizarles y ofrecerles información y orientación para que refuercen los factores de protección y actitudes saludables de sus hijos e hijas ante conductas de consumo y riesgo.
- Colaborar con otros programas y/o iniciativas promovidas por el Ayuntamiento y relacionadas con el ámbito del programa

- **<u>Objetivos del programa de carácter educativo para sustituir la multa a menores por consumo de sustancias en Zarautz:</u>** Este programa está dirigido tanto al menor como a sus padres y madres, se trata de una opción voluntaria y puede sustituir al pago de la multa que los y las menores han recibido por el consumo de sustancias en la calle.

  Tiene un carácter preventivo y educativo y su objetivo principal es sensibilizar y concienciar sobre el riesgo y los daños del consumo de alcohol u otros comportamientos adictivos. Asimismo, el programa promueve:

  - Reforzar las actitudes responsables y factores de protección.
  - La implicación de los padres, madres o tutores, acogedores y cuidadores legales o de hecho, para la transformación y reconstrucción del comportamiento de los y las menores. Para ello se les facilitará la información, el apoyo y la ayuda que precisen.

4.- LOS DESTINATARIOS Y LAS DESTINATARIAS

- **<u>Destinatarios y destinatarias del programa de prevención de adicciones en los centros educativos Zarautz:</u>** El público destinatario será la comunidad educativa de Zarautz, concretamente el alumnado, el profesorado y los padres y madres de los centros que se citan a continuación
  - 5º y 6º de Educación Primaria: Ikastola Salbatore Mitxelena, Colegio La Salle, Orokieta y Colegio Antoniano.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak: Lizardi Institutua, Salbatore Mitxelena Ikastola, La Salle Ikastetxea eta Antoniano Ikastetxea.

Programa egin ahal izateko, ikastetxeek eskaera egin beharko dute Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ondoko ikastetxeek eta Lanbide Hezkuntzakoek gai honi buruzko orientazio- eta aholkularitza-zerbitzua jasotzeko aukera izango dute.

- **Zarautzen substantziak kontsumitzeagatik adingabeei ezarritako isuna ordezkatzeko, izaera hezitzailea duen programaren hartzaileak:**
Zarauzko kaleetan edateagatik Udaltzaingoak zigortutako adingabeak eta haien gurasoak. Programa horretan parte hartzeko isuna jaso ondoren eskaera egin behar dute Udaltzaingoan.

5.- BURUTU BEHARREKO JARDUERAK

- **Zarauzko ikastetxeetan adikzioak prebenitzeko programan burutu beharreko jarduerak:**

  - Beharren diagnostikoa:

Ikasleekin egingo diren tailerrak haien beharretara egokitzeko asmoz, tailerrak garatu aurretik, drogen kontsumoei, ausazko joko eta apustuei eta bizitzarako trebetasunei buruzko diagnostikoa egingo da, sexuaren, adinaren, ikas- mailaren eta ikastetxearen arabera.

Horretarako, lehenik eta behin, enpresa adjudikaziodunak proposatuko ditu ikasleek bete beharreko galdetegiak eta hauek pasatzeko ikas-mailak, eta udaleko ekintza sozio-komunitarioko teknikariarekin eta ikastetxeekin adostuko ditu. Behin datuak jasota, beharrak identifikatu eta gela eta ikas-maila bakoitzean lantzeko edukiak zehaztuko ditu.

- Centros de Educación Secundaria Obligatoria: Instituto Lizardi, Ikastola Salbatore Mitxelena, Colegio La Salle y Colegio Antoniano.

Para poder llevar a cabo el programa, los centros deberán realizar la solicitud en los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zarautz.

Los centros de Educación Secundaria Postobligatoria y Formación Profesional podrán recibir un servicio de orientación y asesoramiento en esta materia.

- **Destinatarios del programa de carácter educativo para sustituir la multa impuesta a menores por consumo de sustancias en Zarautz:** Los y las menores sancionados por la Policía Local por beber en las calles de Zarautz y sus padres y madres. Para participar en este programa deberán realizar la solicitud en la Policía Municipal una vez que hayan recibido la sanción

5.- ACTIVIDADES A DESARROLLARA

- **Actuaciones a desarrollar en el programa de prevención de adicciones en los centros educativos de Zarautz:**

  - Diagnóstico de las necesidades:

Con el fin de adecuar los talleres que se llevarán a cabo con el alumnado a sus necesidades, previamente a su desarrollo, se realizará un diagnóstico sobre consumos de drogas, juegos de azar y apuestas y habilidades para la vida en función del sexo, la edad, el curso y el centro educativo.

Para ello, en primer lugar, la empresa adjudicataria propondrá los cuestionarios y los cursos donde el alumnado deberá cumplimentarlos, y los consensuará con la técnica de acción socio-comunitaria municipal y los centros escolares. Una vez recabados los datos, deberá identificar las necesidades y

Era berean, irakasle zein guraso edo legezko tutoreek gai horien inguruan izan ditzaketen kezka eta beharrak zeintzuk diren ezagutze aldera, haiek betetzeko galdetegiak ere prestatuko ditu. Ikasle, irakasle zein guraso edo tutoreen galdetegietatik ateratako datuak eta ondorioak ekintza sozio-komunitarioko udal teknikariarekin eta ikastetxeekin partekatuko ditu. Diagnostikoan jasotako informazioarekin eta sortutako kezkak kontuan hartuta, ikasturte hasieran, ikastetxe eta hartzaile bakoitzarentzat (ikasleak, irakasleak eta gurasoak) izango den proposamena aurkeztuko dio ekintza sozio-komunitarioko udal teknikariari. □ <u>Saioak ikasleekin:</u> Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgeletan, guztira gehienez lau ordu ikasgela bakoitzean. Saioak egokitu egingo dira ikastetxeko ordutegira, ikas-maila bakoitzera eta ikasgelako errealitatera. Ikas-mailaka garatuko dituen edukien proposamen zehatza egin beharko du, kontuan izanik, honako eduki hauek landu beharko direla: - Bizitzarako trebetasunak: autoestimua, enpatia, emozioen kudeaketa, tentsioak eta estresa maneiatzea, komunikazioa, pertsonen arteko harremanak, gatazken kudeaketa, autoezagutza, erabakiak hartzea… - Drogen kontsumoen, ausazko jokoen eta apustuen ondorioak ezagutzea, eta horien aurrean erabakiak hartzeko gaitasuna eta jarrera arduratsuak sustatzea.		determinar los contenidos a desarrollar en cada aula y curso. Asimismo, con el fin de conocer las inquietudes y necesidades que tanto el profesorado como los padres, madres, tutores o tutoras legales puedan tener en estos temas, elaborará cuestionarios para su cumplimentación. Compartirá con el técnico municipal de acción socio-comunitaria y con los centros educativos los datos y conclusiones extraídos de los cuestionarios del alumnado, profesores, padres o tutores. Con la información recogida en el diagnóstico y teniendo en cuenta las inquietudes surgidas, al comienzo de curso presentará al técnico municipal de acción socio-comunitaria una propuesta para cada centro y para cada uno de sus destinatarios y destinatarias (alumnado, profesorado y padres y madres). □ <u>Sesiones con el alumnado:</u> Aulas de Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria, máximo un total de cuatro horas por aula. Las sesiones se adaptarán al horario del centro, a cada curso y a la realidad del aula. Deberá realizar una propuesta detallada de los contenidos que va a desarrollar en cada curso, teniendo en cuenta que se deberán trabajar los siguientes contenidos: - Habilidades para la vida: autoestima, empatía, gestión de emociones, manejo de tensiones y estrés, comunicación, relaciones interpersonales, gestión de conflictos, autoconocimiento, toma de decisiones... - Conocer las consecuencias de los consumos de drogas, juegos de azar y apuestas, fomentando la toma de decisiones y actitudes responsables ante las mismas.

- Saioak irakasleekin:

Zuzeneko saioak egin aurretik maila bakoitzeko edo ziklo bakoitzeko tutoreekin bilera bat egingo da gelan zer landuko den zehazteko eta irakasleei landuko den programa azaltzeko. Saioekin bukatu ondoren, beste bilera bat egingo da tailerretan ateratako ondorio nagusien berri eman, haien kezkak argitu eta prebentziorako zenbait irizpide emateko.

- Saioak gurasoekin eta legezko tutoreekin:

Ikasleekin saioak bukatzen direnean, guraso eta legezko tutoreei zuzendutako saioak antolatuko dira. Saio horietan, gurasoei eta legezko tutoreei ikasleekin landutako gaien inguruan informazioa emango zaie eta izan ditzaketen kezkak argitzeko tartea eskainiko da.

Gurasoen saioak egin ahal izateko aurretik izena eman beharko dute eta gutxieneko taldea osatu beharko da. Gutxieneko hori zenbatekoa izango den Udalaren, enpresa adjudikaziodunaren eta ikastetxe bakoitzaren artean adostuko da.

Ikasturtean zehar herri mailan, kontsumo eta arriskuko jokabideen aurrean familiek seme-alabengan babes-faktoreak eta jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzeko hiru hitzaldi antolatuko dira.

- Adikzioen aholkularitza-zerbitzua:

Ikasturtean zehar ikastetxeko ikasleek, irakasleek edo gurasoek adikzioekin lotutako kezkak, zalantzak edo zailtasunak badituzte, aholkularitza-zerbitzua erabiltzeko aukera izango dute. Adikzioekin lotutako informazioa, aholkularitza eta orientazioa eskainiko da zerbitzu horretan. Lehenengo harremana e-posta bidez edo telefonoz egingo da, baina egoera bideratzeko edo aztertzeko aurrez-aurre elkartzeko beharra badago, ikastetxean

- Sesiones con el profesorado:

Antes de realizar las sesiones en directo se mantendrá una reunión con los tutores y tutoras de cada nivel o ciclo para concretar lo que se va a trabajar en el aula y explicar al profesorado el programa. Una vez finalizadas las sesiones, se celebrará una nueva reunión en la que se expondrán las principales conclusiones extraídas en los talleres, se responderá a sus inquietudes y se aportarán algunos criterios para la prevención.

- Sesiones con los padres, madres, tutores y tutoras legales:

Una vez finalizadas las sesiones con el alumnado, se organizarán sesiones dirigidas a padres, madres, tutores o tutoras legales. En estas sesiones se informará a los padres, madres, tutores o tutoras legales sobre los temas tratados con el alumnado y se dará espacio para resolver las inquietudes que puedan tener.

Para poder realizar las sesiones con los padres y madres será necesaria la inscripción previa y la formación de un grupo con un mínimo de personas. Este mínimo se acordará entre el Ayuntamiento, la empresa adjudicataria y cada centro educativo.

A lo largo del curso escolar, en el municipio se organizarán tres charlas para que las familias fomenten en sus hijos e hijas factores de protección y actitudes y hábitos saludables ante conductas de consumo y riesgo.

- Servicio de asesoramiento en adicciones:

Si durante el curso escolar el alumnado del centro, el profesorado o los padres y madres tienen inquietudes, dudas o dificultades relacionadas con las adicciones, tendrán acceso al servicio de asesoramiento. En este servicio se ofrecerá información, asesoramiento y orientación en materia de adicciones. El primer contacto se realizará por e-mail o por teléfono, pero en caso de que sea necesario reunirse presencialmente para reconducir o analizar la situación, se podrá mantener una reunión en el

bertan elkartzeko aukera egongo da, edo baita Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako lokalak erabiltzeko ere.

Zerbitzu hori ikasturtean zehar egongo da martxan irailetik ekainera.

Enpresa adjudikaziodunak aurrez aurreko aholkularitzarako gehienez 50 orduko dedikazioa izango du ikasturtean zehar.

Zarauzko ikastetxe guztiek izango dute aholkularitza-zerbitzu hori erabiltzeko aukera.

- **<u>Zarautzen substantziak kontsumitzeagatik adingabeei ezarritako isuna ordezkatzeko, izaera hezitzailea duen programan burutu beharreko jarduerak:</u>**

Udaltzainetatik Gizarte Zerbitzuetara eskaerak bidali eta taldea osatzen denean, saioak antolatuko dira. Lehenik, Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuak jarriko dira harremanetan familiekin, baina gero datak eta egunak zuzenean enpresa adjudikaziodunak adostuko ditu familiekin. Saioak egiteko Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako lokalak erabiliko dituzte. Saioak behar bezala egiten dituztenean, enpresak gazte bakoitzaren ziurtagiria egingo du eta Gizarte Zerbitzuetara bidaliko du ziurtagiria.

 Balorazio-elkarrizketak:

Balorazioa-elkarrizketak egingo dituzte isuna jaso duen gaztearekin eta bere gurasoekin edo legezko tutoreekin. Helburua: familiaren egoeraren balorazioa egitea.

Jarraian gehienez lau saio antolatuko dira taldean, bi adingabeekin eta gehienez bi gurasoekin. Eduki hauek landuko dira:

 Adingabeekin saioek:

- Isuna jaso duten adingabeen kontsumoen arabera, alkoholari, marihuanari edo beste droga batzuei buruzko oinarrizko informazioa. Zer

propio centro escolar o incluso utilizar los locales de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zarautz

Este servicio estará operativo durante el curso escolar de septiembre a junio.

Durante el curso la empresa adjudicataria tendrá una dedicación máxima de 50 horas para el asesoramiento presencial.

Todos los centros de Zarautz tendrán acceso a este servicio de asesoramiento.

- **<u>Actuaciones a realizar en el programa de carácter educativo para sustituir la multa impuesta a menores por consumo de sustancias en Zarautz:</u>**

Desde la Policía Municipal se enviarán las solicitudes a los Servicios Sociales y cuando se forme el grupo se organizarán las sesiones. En primer lugar, los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zarautz se pondrán en contacto con las familias, pero luego las fechas y días se acordarán directamente entre las familias y la empresa adjudicataria. Las sesiones se llevarán a cabo en los locales de los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zarautz. Cuando se realicen correctamente las sesiones, la empresa expedirá un certificado por cada joven y lo remitirá a los Servicios Sociales.

 Entrevistas para valoración:

Se realizarán entrevistas de valoración con el joven o la joven sancionado y con sus padres, madres, tutores o tutoras legales. Objetivo: valorar la situación de la familia.

A continuación, se organizarán un máximo 4 sesiones grupales, dos con los y las menores; y máximo dos con los padres y madres. Se abordarán los siguientes contenidos:

 Sesiones con los y las menores:

- Información básica sobre alcohol, marihuana u otras drogas, según el consumo de los y las menores

substantzia diren, zer ondorio sortzen dituzten, kontsumo arriskutsuak, ondorio psikosozialak… - Kontsumoaren funtzionaltasuna: dituzten kontsumo-ohiturak kontuan hartuta, kontsumo horien ondorioak, hausnarketa, kontsumo-ohiturak aldatzeko jokabide- neurriak… - Kontsumoari lotutako kalteak: gidatzea, arriskuko sexu-harremanak, kontsumoari lotutako indarkeria… - Drogen kontsumoari buruzko egungo legeria. - Kontsumo-egoerei buruzko erabakiak hartzea, arriskuak murrizteko jarraibideak. □ Gurasoekin saioak: - Beren seme-alabek jaso duten isuna, egoera eta nola kudeatu duten familia- testuinguruan. - Guraso modura kontsumoen gaian beren seme-alabengan duten eraginarekiko kontzientzia hartzea. - Arauak eta mugak nola jarri. - Heziketa-estiloak argitu eta bakoitzak nola eragiten duen seme-alabengan, harremanetan zein heziketan. - Gaiarekin erlazionatuta izan ditzaketen egoera ezberdinak kudeatzeko jarraibideak. - Beren zalantzak argitu. **6.- KOORDINAZIOA** Koordinazioari dagokionez, honako hauek egin beharko dira: • Udaleko ekintza sozio-komunitarioko teknikariarekin etengabeko koordinazioa mantendu.		sancionados. De qué sustancias se trata, qué efectos producen, consumos de riesgo, consecuencias psicosociales... - Funcionalidad del consumo: teniendo en cuenta sus hábitos de consumo, las consecuencias de los mismos, la reflexión, las medidas conductuales para modificar los hábitos de consumo... - Daños asociados al consumo: conducción, relaciones sexuales de riesgo, violencia asociada al consumo... - Legislación actual sobre el consumo de drogas. - Toma de decisiones sobre situaciones de consumo, pautas de reducción de riesgos. □ Sesiones con los padres y madres: - La multa que han recibido sus hijos e hijas, la situación y cómo lo han gestionado en el contexto familiar. - Toma de conciencia de la influencia que tienen como padres y madres sobre sus hijos e hijas en el tema de los consumos. - La forma de poner normas y límites - Aclarar los estilos educativos y la manera en que cada uno influye en las relaciones y en la educación de sus hijos e hijas. - Pautas para la gestión de posibles situaciones deferentes relacionadas con el tema - Resolver sus dudas **6.- COORDINACIÓN** En cuanto a la coordinación, se deberá: • Mantener una coordinación permanente con el técnico de acción socio-comunitaria del Ayuntamiento.

• Programa antolatu eta garatzeko ikastetxeekin beharrezko koordinazioa mantendu. • Ikastetxeekin eta ekintza sozio-komunitarioko udal teknikariarekin programaren jarraipen-bilerak egin, ikasturte hasieran programa eta lan- plana azaltzeko eta amaieran, berriz, balorazioa egin eta hobekuntzak proposatzeko. • Ikasturtean zehar ekintza sozio-komunitarioko teknikariarekin gutxienez beste hiru bilera programen jarraipen zuzenerako. • Isunak ordezkatzeko sortzen diren taldeen jarraipena, antolaketa, etengabeko koordinazioa. • Herri mailako beste prebentzio- programa edo esku-hartzeekin sare- lanean aritzea.	• Mantener la coordinación necesaria con los centros educativos para la organización y desarrollo del programa. • Realizar reuniones de seguimiento del programa con los centros escolares y con el técnico municipal de acción socio-comunitaria, al inicio del curso para explicar el programa y el plan de trabajo, y al final, para valorar y proponer mejoras. • Al menos otras tres reuniones a lo largo del curso con el técnico de acción socio-comunitaria para el seguimiento directo de los programas • Seguimiento, organización, y coordinación permanente de los grupos de sustitución de multas. • Trabajar en red con otros programas o intervenciones preventivas del municipio.
7.- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEHEARRAK • Programa garatu, onartutako baldintza tekniko, denborazko eta ekonomikoetan. • Proposatutako helburuak ongi garatu. • Programa garatzeko beharrezkoak diren bitarteko pertsonal, tekniko eta azpiegiturakoak jarri. • Ikasturte hasieran Gizarte Zerbitzuetako ekintza sozio-komunitarioko teknikariarekin bilduko da ikasturteko programazioa eta prozesua prestatu eta adosteko. • Ikastetxeetan programa aurkeztu, programa garatzeko egutegia adostu eta saioak aurrera eramateko koordinatu, betiere Udaleko teknikariaren oniritziarekin. Ikasturte hasieran eta ikastetxeekin datak lotutakoan, adostutako saioen egutegi zehatza bidali Udal teknikariari. • Ikasturtean zehar koordinazio bilerak udaleko teknikariarekin. • Proiektuaren garapenari buruzko ebaluazio-txostenak eta memoriak prestatu eta aurkeztu. Bertan adieraziko dira parte hartu duen talde-kopurua eta kolektibo bakoitzarekin zenbat ordutan aritu diren.	**7.- OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA** • Desarrollar el programa en las condiciones técnicas, temporales y económicas aprobadas. • Desarrollar de manera satisfactoria los objetivos propuestos • Dotar de los medios personales, técnicos y de infraestructura necesarios para el desarrollo del programa. • Al inicio de curso se reunirá con el técnico de acción socio-comunitaria de Servicios Sociales para elaborar y consensuar la programación y el proceso del curso. • Presentar en los centros el programa, acordar el calendario de desarrollo del programa y coordinarse para el desarrollo de las sesiones, siempre con el visto bueno del técnico del Ayuntamiento. Enviar al técnico municipal un calendario detallado de las sesiones acordadas a principio de curso y una vez enlazadas las fechas con los centros. • Reuniones de coordinación durante el curso con el técnico municipal. • Elaborar y presentar informes de evaluación y memorias sobre el desarrollo del proyecto. En ella se indicará el número de grupos participantes y el número de horas trabajadas con cada colectivo. Se recogerán todos los

Irakasle, ikasle zein gurasoen datu guztiak sexuka jasoko dira. Ikasturtean zehar beharrezkoak diren aldizkako txostenak aurkeztuko dira, eta ikasturtearen bukaeran, azken memoria ekainean aurkeztu beharko da; bertan talde teknikoaren gainbegiraketaren zehaztasunak eta alderdi esanguratsuenak aipatuko dira, hurrengo ikasturterako hobekuntzak sartzeko. • Aholkularitza-zerbitzuaren jarraipena egiteko, gutxienez hiru hilabetean behin udal teknikariarekin koordinazio-bilera egingo da eta txostena aurkeztuko da. Besteak beste zerbitzuaren erabilerari buruzko datuak aurkeztuko dira: zerbitzua erabili duten pertsona-kopurua, adina, sexua, ikastetxea. • Proiektua eta txosten guztiak euskaraz aurkeztu beharko dituzte.		datos sobre profesorado, alumnado y padres y madres desagregados por sexo. Se presentarán los informes periódicos necesarios a lo largo del curso, y al final del curso, la memoria final deberá presentarse en junio, en la que se recogerán los detalles y aspectos más significativos de la supervisión del equipo técnico para introducir mejoras para el curso siguiente. • Para el seguimiento del servicio de asesoramiento, al menos trimestralmente se mantendrá una reunión de coordinación con la técnico municipal. Se presentarán, entre otros, los datos de uso del servicio: número de personas usuarias del servicio, edad, sexo, centro educativo y se presentara un informe. • Todos los proyectos e informes deberán presentarse en euskera.
8.- GIZA BALIABIDEAK Zerbitzuan jardungo duten langile guztiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: Gizarte Hezkuntzako Diplomatura edo Gradua, Gizarte-lana, Psikologia, Pedagogia edo Psikopedagogian diplomatura edo gradua izatea; edo Gizarteratzeko goi-mailako teknikari titulua (goi-mailako heziketa-zikloa). Ondorengo arloetan esperientzia izatea gutxienez ikasturte batean: • Hezkuntza-munduan nerabe, gazte, irakasle eta gurasoekin eskola-prebentzioko jarduerak. • Nerabe eta gurasoekin esku-hartzeko eta taldeak dinamizatzeko teknikak maneiatzen. • Programen antolaketa eta diseinua eta hezkuntzaren mundua ezagutzea. • Nerabee eta talde kalteberekin esku-hartzea. Talde teknikoa osatzeko behar adina profesional jarriko dira, kontuan izanda 5 eskolek egin dezaketela programa hau garatzeko eskaera, eta horrek gutxi gorabehera 1.400/1.800 ikasleko		**8.- RECURSOS HUMANOS** Todo el personal destinado al servicio deberá cumplir los siguientes requisitos: Diplomatura o Grado en Educación Social, Trabajo Social, Psicología, Pedagogía o Psicopedagogía; o el título de Técnico Superior en Integración Social (ciclo formativo de grado superior). Experiencia en las siguientes áreas al menos un curso académico: • En el mundo educativo actividades de prevención escolar con adolescentes, jóvenes, profesorado y padres y madres. • Manejo de técnicas de intervención con adolescentes, padres y madres y dinamización de grupos • Organización y diseño de programas y conocimiento del mundo educativo. • Intervención con adolescentes y grupos vulnerables. Se dispondrá de un número profesionales suficiente para conformar el equipo técnico, teniendo en cuenta que son 5 las escuelas que pueden solicitar el desarrollo de este programa, lo que representa una población objeto aproximada

xede-populazioa osatzen duela, baldin eskola guztiek eskaera egiten badute.

Enpresa adjudikaziodunak bermatuko du, bere giza baliabideen bidez, lantalderako arduradun bat. Arduradun horrek egingo ditu aholkularitza-zereginak, bera arduratuko da programaren koordinazioaz eta gainbegiratze teknikoaz, eta honako funtzio hauek izango ditu:

- Ikasturteko lan-plana prestatu eta azaltzea eta ikastetxeekin egutegia eta ordutegia zehaztea.
- Isunen ordezko neurriak betetzeko taldeak osatzen direnean, talde horien egutegiak eta ordutegiak zehaztea.
- Programatutako jarduera eta eskuhartze guztiak gainbegiratzea.
- Zerbitzuaren funtzionamendua aztertzea eta beharrezkoak ikusten diren hobekuntzak proposatzea.
- Ekintza sozio-komunitarioko teknikariarekin eta ikastetxeekin koordinatzea.
- Egoerak hala eskatzen duenean, herrian beste prebentzio-proiektu edo esku-hartzeak garatzen dituzten erakunde eta gizarte-eragileekin koordinatzea.

9.- DEDIKAZIOA

JARDUERA	**GEHIENEZKO ORDU KOPURUA**
Beharren diagnostikoa	40 ordu
Ikasleekin, tailerrak	288 (4 ordu ikasgelako)
Irakasleekin saioak	50 ordu
Aholkularitza, ikastetxeei	40 ordu
Gurasoentzako saioak	20 ordu
Aholkularitza, gurasoei	30 ordu
Ordezko neurriak, elkarrizketak	90 ordu elkarrizketak
Ordezko neurriak, saioak	33 ordu
	591

de 1.400/1.800 alumnos y alumnas si todos los centros así lo solicitan.

Con sus recursos humanos la empresa adjudicataria deberá garantizar una persona responsable del equipo de trabajo. Esta persona responsable realizará las funciones de asesoramiento, coordinación y supervisión técnica del programa y tendrá las siguientes funciones:

- Elaborar y explicar el plan de trabajo del curso y concretar el calendario y horario con los centros escolares.
- Cuando se constituyan los grupos para el cumplimiento de las medidas alternativas a las multas, concretar los calendarios y horarios de los grupos.
- Supervisar todas las actividades e intervenciones programadas.
- Analizar el funcionamiento del servicio y proponer las mejoras que se consideren necesarias.
- Coordinación con la técnica de acción socio-comunitaria y con los centros educativos.
- Cuando las circunstancias lo requieran, coordinarse con otros agentes institucionales y sociales que desarrollen otros proyectos o intervenciones preventivas en la localidad.

9.- DEDICACIÓN

ACTIVIDAD	**NÚMERO MÁXIMO DE HORAS**
Diagnóstico de las necesidades	40 horas
Talleres con el alumnado	288 (4 horas por aula)
Sesiones con el profesorado	50 horas
Asesoramiento a centros escolares	40 horas
Sesiones para padres y madres	20 horas
Asesoramiento para padres y madres	30 horas
Medidas alternativas, diálogos	90 horas, diálogos
Medidas alternativas, sesiones	33 horas
	591

Aipatutako orduak urteko gehienezko ordu kopurua da. Urtez urte eta egoeraren eta beharren arabera, jarduera bakoitzeko ordu kopurua aldatu daiteke, baina guztizko gehienezko ordu kopurua hori izango da. **10.-GIZARTE ZERBITZUETAKO EKINTZA SOZIO-KOMUNITARIOKO TEKNIKARIAREN BETEBEHARRAK** • Programaren jarraipena. • Proposamenak, oharrak, erabakiak, iradokizunak, programaren funtzionamendu egokirako. • Aldiro-aldiro programaren koordinazio eta jarraipen bilerak deitu. • Ahalmena izango du, enpresa adjudikaziodunarekin batera eta elkarrekin adostuta, jardueren aldaketak proposatzeko, betiere oinarrietan jasotako helburuak betetze aldera. Ekintza sozio-komunitarioko teknikariak, enpresa adjudikaziodunarekin batera eta elkarrekin adostuta, beharrezkoa bada erabakiko du ea kasuren batean proiektuan aurreikusitako orduak gehitzen edo gutxitzen diren.		Las horas mencionadas suponen el máximo de horas anuales. El número de horas por actividad podrá variar año a año, en función de las circunstancias y necesidades, pero el número máximo de horas totales será el indicado. **10.- OBLIGACIONES DE LA TÉCNICA EN ACCIÓN SOCIO-COMUNITARIA DE SERVICIOS SOCIALES** • Seguimiento del programa. • Propuestas, observaciones, decisiones, sugerencias para el buen funcionamiento del programa. • Convocar reuniones periódicas de coordinación y seguimiento del programa. • Tendrá potestad para proponer, conjuntamente con la empresa adjudicataria y de común acuerdo, modificaciones de las actuaciones para el cumplimiento de los objetivos recogidos en las bases. La técnica de acción-sociocomunitaria, conjuntamente con la empresa adjudicataria y de común acuerdo, decidirá si en algún caso es necesario aumentar o disminuir las horas previstas en el proyecto.